

1. BALORE PROPOSAMENA:

Atzerrira bizitzera joaten garenean faltan ditugu gure lagun, familia, egunerokoa... Askotan gure hizkuntzaz hitz egiteko gogoia ere izaten dugu baina ez dugu norekin euskaraz hitz egin.

Gure balore proposamena **aplikazio** bat da, atzerrian dauden **euskaldunei zuzenduta** dagoena. Aplikazioak berak izango duen mapa baten bitartez, gainontzeko erabiltzaileak non dauden ikusi ahal izango da eta gertu nor dagoen jakin; hau da, munduan zehar zabaldua dauden euskaldunak ikusi ahal dira. Horrela, inguruan dauden euskaldunekin harremanetan jarri ahal izango dira erabiltzaileak eta nahi izanez gero, hauekin **elkartzeko** edo hauekin batera **bidaiaren** bat antolatzeko aukera emango die aplikazioak. Zer nahi den jarritz gero, guk geuk antolatuko ditugu garraioa, estantzia...

Hobeto esanda, bidaiaria horiek antolatzeko behar direnak (garraioa, prezioak, estantzia, ekintzak...) antolatzen dituztenekin harremanetan jartzen gara eta hauek ematen dituzten aukera onenak aplikazioaren erabiltzaileari bidaliko dizkiogu, berak bilaketa hori egin behar ez dezan. Hainbat bidaiaria agentziekin kolaboratzen dugunez, erabiltzaileak aplikazioan bere nahiak idatziko ditu: zer garraio nahi den, nora joateko, zenbat pertsona, zer ekintza mota nahi diren... Guk, nahi horiek bidaiaria agentziei komunikatzen dizkiegu eta hauek antolatuko dute eta ondoren guk informazio hori erabiltzaileari heralaziko diogu. Beraz, guk bitartekari lanak egingo ditugu.

Gainera, Euskal Herrian dauden euskaldunei zure kokapeneko **berriak** emateko atala ere izango du aplikazioak. Honen bidez, aplikazioa duten ezagunei zure **bizipenak** kontatu ahalko dizkiezu eta hauek munduan gertatzen ari denari buruz gehiago jakingo dute. Izan ere, erabiltzaile bakoitzak bere kontutik beste kontu batzuk jarraitu izan ahalko ditu eta hauek sarera igotzen dituzten berriak.